



## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGORAKO EGEF 2014-2020 PROGRAMA OPERATIBO BERRIAREN PROGRAMAZIO PROZESUAREN HASIERA

Europako Parlamentuak azaroaren 20an onartu zituen **2014-2020rako Kohesio Politika Berria** abian jartzeko arau nagusiak eta esleipen-irizpideak. Hala, eta 2014-2020rako Hainbat Urterako Finantza Esparruaren arabera, akordioak bermatu egiten du Europako eskualdeetarako funtsetan 325.000 milioi euroko inbertsioa, Europar Batasunaren **Europa 2020 Estrategian** zehaztutako helburu nagusiak betetzeko.

Onartu duten Kohesio Politikaren lege sortan sartuta daude Europako Egitura eta Inbertsio Funtzak kudeatzeko araudiak, eta horien artean dago, besteak beste, **Eskualde Garapeneko Europako Funtza (EGEF)**.

Estatuari programazio-aldi berrirako esleitutako aurrekontu osoa eta Estatuak eskualdeen artean banatzeko aplikatzen dituen esleipen-irizpideak aintzat hartuta, **396,2 milioi euro jasoko ditu Euskadik egitura-funtsetatik** eta horietatik % 65 Euskal Administrazio Publikoetako jardueren finantzaketara bideratzeko programatu beharko dira. Gainerako % 35a ere Euskadin aplikatuko bada ere, Estatuaren Administrazio Orokorrek kudeatuko du. Hala eta guztiz ere, eskualde-tarteko 71 milioi (% 27,6) Europako Gizarte Funtzaren (EGIF) baliabideei dagozkie eta gainerako **186,4 milioi euroak (% 72,4) Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik (EGEF) etorriko dira**.

**Gipuzkoari** begiratuta, Eusko Jaurlaritzak egindako esleipenaren arabera, EGEFtik datozen baliabideak **18,4 milioi eurokoak izango dira 2014-2020rako**. Horrek esan nahi du **36,9 milioi euroko zenbatekoa duten jarduerak programatu behar direla** programazio-aldi berriak izango dituen **zazpi urteetarako**.

---

Testuinguru horretan, eta 2014-2020 aldian Gipuzkoan egin beharreko jardueren programazioan urratsak emate aldera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak, Udalentsako Laguntza eta Europako Funtzak atalaren bidez, **Euskal Autonomia Erkidegorako EGEF 2014-2020 Programa Operatibo berrian txerta daitezkeen jarduerak aztertze, hautatzeko eta proposatzeko prozedura** abiarazi du.



Euskal Autonomia Erkidegorako EGEF 2014-2020 Programa Operatiboan sartzeko proiektu hautagaiak hautatzeko, kontuan hartu behar da EGEFk kofinantzatutako inbertsioak gauzatzea ahalbidetu behar dela programazio-aldi osoan eta hori dela-eta, *a priori*, proiektuak honako 2 irizpide orokor hauen arabera hautatuko dira:

- **Kontzentrazio tematikoaren printzipioa.** Europar Batasunaren lehentasunak gauzatzeko politiken eragina ahalik eta handiena izan dadin, Europako Batzordeak indartu egin du programazio estrategikoaren prozesua eta Europa 2020 Estrategia eta haren arauak betez landu beharreko Gaikako Helburu sorta bat txertatu dizkio. Haren arabera, eta EGEFren eta eskualde garatuenen kasuan (horien artean da Gipuzkoa), programazioko gutxienez baliabideen % 80 I+G+b, IKT, enpresa txiki eta ertain eta karbono maila baxuko ekonomia arloetako Gaikako Helburuetara bideratu behar da. Horrez, gain, gutxienez baliabideen % 20 azken Gaikako Helburu horretara bideratu beharko dira (*Ikus honi erantsitako EGEFri buruzko taula*).
- **Dimentsioa eta hainbat urterako izaera.** Hautagaiak hautatzeko, aurrekontuan nolabaiteko pisua duten jarduerak izatea/hautatzea komeni da, EGEFk kofinantzatutako inbertsioak programazio-aldi osoan errazago gauzatzeko. Era berean, gomendagarria da hautatutako jarduerak epe ertainean garatzeko modukoak izatea, 2014-2020 aldia ahalik eta zatirik handienez hartzeko.
- **Gipuzkoako lehentasunak.** Gipuzkoako lurraldeko helburuekin eta Europar finantzaketarako zehaztutako Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehentasunekin bat datozen eta sustatzen dituzten ekimenak kontutan hartuko dira.

---

Hortaz, eta irizpide horien arabera, laster Foru Departamentu, Zuzendaritza eta Zerbitzuekin harremanetan jarriko gara **Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskal Autonomia Erkidegoko 2007-2020rako Programa Operatiboan sartzeko proposa ditzakeen proiektuak eta ekimenak hautatzeko** urratsak emateko.

Nolanahi ere, Gipuzkoako Foru Aldundian **prozesu irekia eta partaidetzan oinarritua** izatea nahi dugu, Euskal Autonomia Erkidegorako EGEF 2014-2020 Programa Operatibo berrian sartzeko modukoak diren jarduerak identifikatu eta proposatze aldera. Ongi etorriak izango dira, nola ez, Foru Aldundiko Departamentuetatik iristen diren ekarpen guztiak.



## Eskualde Garapeneko Europako Funtza (EGEF)

**Eskualde Garapeneko Europako Funtzak (EGEF)** Europar Batasuneko ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen kohesioa indartzea eta eskualdeen arteko desorekak zuzentzea du xedea. Onartu duten Hainbat Urterako Finantza Esparruaren eta Kohesio Politika Berrirako irizpideen arabera, EGEFk, 183.300 milioi euroko kontu-saila du 2014-2020 aldirako.

Europako Batzordearen arabera, Europako eskualdeek hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzaileko Europa 2020 Estrategiarekin bat datozen Gaikako 11 Helburutan kontzentratu beharko dute EGEFren laguntza. Hemen azalduko ditugu, zehaztuta:

### **Hazkunde adimentsua**

1. Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza indartzea.
2. Informazioaren eta komunikazioen teknologietarako sarbidea, horien erabilera eta kalitatea hobetzea.
3. Enpresa txikien eta ertainen, nekazaritza-sektorearen eta arrantza- eta akuikultura-sektorearen lehiakortasuna hobetzea.
4. Karbono-isuri gutxiko ekonomia lortzeko bidean, sektore guztietan urratsak ematea.

### **Hazkunde iraunkorra**

5. Klima-aldaketara egokitzeko eta arriskuak prebenitu eta kudeatzeko sustapen-lana egitea.
6. Ingurumena babestea eta baliabideen erabilera eraginkortasuna bultzatzea.
7. Garraio iraunkorra sustatzea eta sareko azpiegitura nagusietatik itomenguneak ezabatzea.

### **Hazkunde integratzailea**

8. Enplegua sustatzea eta laneko mugikortasunerako erraztasunak eskaintzea.
9. Gizarteratzea sustatzea eta pobrezia aurka egitea.
10. Hezkuntzan inbertsioak egitea eta gaitasun profesionalak zein etengabeko prestakuntza hobetzea.
11. Erakundeen gaitasunak eta Administrazio publikoaren eraginkortasuna hobetzea.

EGEF araudiak zehazten du funtsaren esku-hartze eremua zein den eta laguntza jasotzeko hautagai izan ezin direnen zerrenda negatibo bat ere badu. Horrez gain, gaikako Helburu bakoitzerako inbertsio-lehentasunak ere ezartzen ditu.

Garapen maila altuen duten eskualdeek eta bidean direnek gutxienez baliabideen % 80 erabili beharko dute Gaikako lehen 4 Helburuetan: I+G+b (GH 1), IKTak (GH 2), enpresa txikiak eta ertainak (GH 3) eta karbono maila baxuko ekonomia (GH 4). Horrez gain, gutxienez baliabideen % 20 bideratu beharko dituzte azken gaikako helburu horretara (GH 4). Garapen maila txikieneko eskualdeetan, esleitzen zaizkien baliabideen % 50 bideratu beharko dute gutxienez aipatu ditugun Gaikako Helburu horietara.

EGEFk laguntza espezifikoak izango ditu hirientzat eta hiri-garapenerako. Araudiaren arabera, hiri-garapen integratu eta iraunkorrerako neurrientzat funtsak gordeko dira (gutxienez % 5); baita hirien arteko trukeak sustatuko dituen hiri-garapenerako plataforma bat sortzeko ere.

EGEFren araudiak finantzaketaren emaitzei lehentasuna eman nahi die, eta xede horretarako, finantzaketaren amaierako helburuari lotutako emaitzen gauzatze fisikoei eta jarraipenari buruzko adierazle komunak erabiltzearen aldekoa da. Planteatzen du Programa Operatiboetan desabantaila naturalak edo zailtasun demografiko larriak eta iraunkorrak dituzten eskualdeen zailtasunei arreta berezia eskaintzeko beharra ere.

### **FEDER araudia:**

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docoffic/official/regulation/pdf/2014/proposals/regulation/erdf/erdf\\_proposal\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/regulation/pdf/2014/proposals/regulation/erdf/erdf_proposal_es.pdf)

### **Europako Funtzak Gipuzkoan, informazio gehiago:**

<http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/index.htm>